

## SEGMENTAZIOA

Gure enpresaren azterketa egin ondoren, ikusi ahal izan dugu bezero ugari ditugula gure produktuarekin euren bizitza hobetuko luketela:

Lehenik eta behin, gure produktua aurpegia eskaneatzen duen sarraila da. Sarraila hau, aurretik esan bezala, etxebizitzetako ateetan egongo da, horrezkero, bezero nagusiak etxea duten pertsona helduentzat da.

Beste alde batetik, familiei ere lagunduko diegu. Gaur egun, guztiok ditugu gure etxeko giltzak logikoa den moduan, baina noiztik? Noiz jasotzen ditu ume batek bere etxeko giltzak? Honela dago pentsatua gure ideia: Gurasoek erabakiko dute noiz edukiko duten euren seme-alabek eskaneatuta hauen aurpegiak sarraila digitalean. Gazteen aurpegia sarrailan instalatzeko, hauen tutore legalak egin behar du. Guzti hau esanda, familiak ere gure bezero garrantzitsuak dira.

Enpresak ere gure bezero garrantzitsuak izango dira. Edozein enpresa, haien segurtasun maila igotzeko eta ateak azkarrago eta erosoago irekitzeko, gure sistema erosi dezakete.

DATUEN BILKETA bat egingo dugu, gure bezero gehiago identifikatzeko. Datu bilketa hau, inkesten bidez burutuko dugu; kalean, Interneten, Unibertsitatetan, eta abar. Inkesta honetan, etxean zenbat diren galdetuko zaie, ideia gustatzen zaien begiratu dute, edo gure enpresa nork kontratatu dezakeen. Hau jakitean, gure enpresaren jarduna, jende horri bideratuko diegu, ahalik eta erosle gehiagori heltzeko.